

Iritzia: Jon Morandeira, GEEBeko teknikaria

Gizarte ekonomiaren definizioa osatu da jada, gutxienez eremu instituzionalean, eta orain beharrezkoa da gizarte ekonomiako entitate guztien jardura kuantifikatzea.

INFORMAZIO +



... gainera

### ASLEren III. Biltzarra: "XXI. mendeko lan-sozietatea"



Joan den martxoaren 15ean, UPV/EHuko Bizkaia Aretoan ASLEren III. Biltzarra egin zen. Bertan, lan-sozietatearen inguruko proposamen probokatzaile eta ausartak egin zituzten, eta horiek ASLEren hurrengo Batzar Nagusian eztabaidatuko dira.

INFORMAZIO +

### GIZARTE EKONOMIAREN EGOERA TXOSTENA 2010

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak burutu duen [Euskal Gizarte Ekonomiaren Egoera Txostena](#) 2010ean Lan Sozietate kopurua %5,67 jeitsi dela agerian uzten du. Baina, joera positiboa du 2008-2009 urteetako zenbakiak hobetzen baitira.

### 5/2012 LEGEA, OTSAILAREN 23KOA, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEENA

Argitaratuta 5/2012 legea, otsailaren 23koa, borondatezko gizarte-aurreikuspenen erakundeena 2012/03/06ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 47. Zbk. [Legea](#)

### ESKURAGARRI GIZARTE EKONOMIAKO EUSKAL ALDIZKARIAREN 7. ZBK.

Eskuragari Gizarte Ekonomiako Euskal Aldizkariaren 7. zenbakia GEZKI Institutuko web orriari. [Aldizkaria](#)

### ESKURAGARRI EUSKADIKO GIZARTE EKONOMIAREN JARDUNALDIKO BIDEOA

TESS Sareak (Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Mugaz Gaindiko Sarea) 2012ko otsailaren 1ean antolatutako Euskadiko Gizarte Ekonomiaren Jardunaldian ikuskatutako bideoa argitaratu da. [Gaztekeraz Euskaraz Helebidun](#)

### FIARE, BANKU ETIKOKO PROIEKTUAK, WEB BERRIA ESTREINATZEN DU

Transparentzia bidera, "gizarte balioan" aberatsagoak eta bidezkoagoak diren finantza alternatibetan sinesten duten erakunde eta pertsonengano hurbiltasunera, beste urrats bat da web orri berria. "Gizarte bidezkoago baten

### UPV/EHUK eta REAS Euskadik gizarte ekonomia eta solidarioaren aldeko hitzarmena sinatu dute

Joan den otsailean, Euskal Herriko Unibertsitateak eta REAS Euskadik (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) akordio bat sinatu zuten elkarlanean jarduteko gizarte erantzukizunaren, jasagarritasunaren, ezagutzaren transmisioaren, prestakuntzaren eta baloreetan oinarritutako hezkuntzaren alorretan.

INFORMAZIO +



### Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak kooperazio proiektu bateratu bat gauzatzeko hizketaldi formalak hasi dituzte

Egoitza EAEn duten bi kreditu kooperatibek, Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak, integratzera zuzendutako solasaldiei ekin diete. Erakunde bien arteko aliantza norbere nortasun kooperatiboa mantenduz egingo da, eta batasun horretatik sortzen den entitatea Euskal Herriko bigarren finantza erakunde eta Estatuko bigarren kreditu kooperatiba bilakatuko da.

INFORMAZIO +



Euskal enplegu zentro bereziek eta gizarteratze zein laneratze enpresek euren egoera aurkeztu zioten Lanbideri

Iragan otsailaren 15ean, Lanbide lan jardunaldi bat egin zuen Argomaniz-eko Paradorean, eta 50 bat pertsona bildu ziren bertan: entitate publiko horretako zerbitzu eta arlo anitzetako arduradunak eta Administrazio kontseilua elkartu ziren. Azken organo hori Eusko Jaurlaritzak, UGTK, CC.OOK eta Confebasken osatzen dute.



INFORMAZIO +



Donostian eta Oñatin egingo diren CIRIECen jardunaldietarako komunikazio proposamen kopuruak marka berria gainditu du

Ekainaren 20 eta 22 artean Donostian eta Oñatin gauzatuko diren XIV. Gizarte Ekonomiako Ikertzaileen Jardunaldietarako 200 komunikazio proposamen inguru jaso ditu CIRIEC-Espainiak. Kopuru horrekin marka berria hautsi du espainiar Estatuko gizarte ekonomiako aditu nagusiak eta sektoreko zein administrazioetako ordezkariak elkartzen dituen ekitaldi honek.

INFORMAZIO +

SPRIK eta Mondragonek Punen, Indian, enpresak ezartzeko akordioa sinatu dute

Joan den asteartean, SPRIK eta Mondragonek kolaborazio akordio sinatu zuten Indian. Horrela, kooperatibak Puneko industria parkean dituen 160.000 metro koadroetatik 40.000 laga ditu, korporazioko kide ez diren enpresek bertan ezartzeko aukera izan dezaten.



INFORMAZIO +



Eroskik bere lehen bi sozietateak kooperatibetan eraldatzen ditu, 4.000 langile baino gehiago integratuz bazkide jabe berri gisa

2009ko urtarrilean Eroskik baiezkua eman zion munduko banaketa kooperatiba handiena bihurtzea helburu duen proiektuari. Horretarako, besteren kontura lanean diharduten 30.000 langileak bazkide bihurtzea lortu beharko da, gaur eguneko 8.500 bazkideei gehituz. Hiru urteren ondoren, eta garapen prozesu zail eta luze baten ostean, Mondragon Taldeko Eroski lehen urratsak ematen hasia da.

INFORMAZIO +

Udapa kooperatibak Europako Ingurumen Saria jaso du

Martxoaren 8an, Madrilen, Zientzia Ikerketen Goi-mailako Kontseiluan (CSIC) Europako Ingurumen Sarien banaketa egin zen. Espainiako sailean, Entorno BC-SD Fundazioa arduratzen da sariak emateaz eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa duten enpresek jasotzen dituzte. UDAPA kooperatiba arabarra izan da aurten sarituetako bat.



INFORMAZIO +

zerbitzura, balore desberdineko ekonomia eratzeko finantza-merkatuan alternatibak sortzeko bokazioa duten pertsonen eta erakundeen sarea; eta, aldi berean, Espainian Banca Popolare Etica, S. Coop. agente moduan lan egiten duen enpresa gara." [Web](#)

**GIZARTE ZERBITUZAK, GIZARTE EKONOMIA ETA ENPLEGUA**

Aktibitate ezberdinetan bezela Gizarte Zerbitzuetan ere, talde ezberdinen artean enplegua sortzeko lankidetzaz sarea eratzearen beharra plantetazten. Agente ekonomiko eta sozialak, kooperatibak edo gizarte ekonomiako printzipioetan oinarritutako enpresak enplegua sortzeko potentzial handiagoa duten sektoreak garatzeko. [Artikulo \(Gaztelera\)](#)

**GIZARTE EKONOMIA SUSTATZEKO ETA HEDATZEKO EBAZPENA GIPIZKOAN.**

Pasadan martxoak 7an osoko bilkuran, Gipuzkoan Gizarte Ekonomia sustatzeko eta hedatzeko 26/2012 Ebazpena onartu zen. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen diote, bere eskumenen barruan, gizarte ekonomia garatzea bultzatu, sustatu eta babesteko. [Ebazpena](#)

**GEZKI, GEEB ETA SAIOLAN**

Martxoaren 28an Gizarte Ekonomia ekintzailetasuna sustatzeko etorkizuneko lankidetzaz ekintzen inguruko bilera ospatu zen. GEZKI eta GEEBetik Baleren Bakaikoa, Txema Pérez De Uralde eta Jon Morandeira parte hartu zuten eta Saiolan aldetik Armin Isasti eta Isabel Uribe.

**EUROPAR FUNDAZIOEN ESTATUTUA**

Europako Batzordeak otsailaren 8an Europar Fundazioen Estatutuaren arautze proposamena onartu zuen, geroago Europar Legebiltzarrak eta Kontseiluak onartu beharko luketelarik. [Proposamena \(Gaztelera\)](#)

**BIZTANLERIA PAIRATZEN DUEN EGOERAREN AURREAN, GIZARTE EKIMENEN PROIEKTU AUTO-KUDEATUAK UGALTZEN ARI DIRA GREZIAN**

Abel Mateosek, Atenasen bizi den filologo Valentziarra, Grezian auto-kudeaketan oinarritutako talde antolatuaugaritu direla dio "alternatiba bakarra" baita. [Artikulu \(Gaztelera\)](#)

**ESKURAGARRI ANUARIO IBEROAMERICANO DE LA ECONOMIA SOCIAL 2. ZBK.-2011**

FUNDIBESen Urtekariak Iberoameriketako Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren, politika publikoen, herrialde ezberdinen errealitate konkretuen, jokabide eraginkorren ereduaren, eta bereziki mota honetako erakundearen aldeko arautegien beharren eta proposamen inguruko gogoetak eta informazioak eskaintzen jarraitzen du. [Urtekaria \(Gaztelera\)](#)



## BBKBilbaoGoodHostel: Urritasuna duten pertsonen kudeatutako hiri hostela

Lantegi batuak kudeatuko duen Hostela 2012ko apirilaren 2an irekiko ditu ateak. BBK-k eta gizarte ekonomiako Lantegi Batuak enpresan garatutako proiektua izanik, urritasunen bat duten pertsonen gizarteratze nahiz laneratzea sustatzea da BBKBilbaoGoodHostel-en helburu nagusia. Hostel berritzaile horren helburua, bestalde, egokitutako turismoaren alorrean Europa mailako erreferente bilakatzea da, orain arte esparru hori ez baita landu hiri-mailan.

INFORMAZIO +

## EHUK irizpide sozialak, etikoak eta ingurumenarekin loturikoak barneratuko ditu kontratazioetan 2012tik aurrera

EHUKo Gobernu Kontseiluko ekonomia batzordeak zirkular bat onartu zuen iragan abenduaren 22an, unibertsitateak egiten dituen kontratazioetan irizpide sozialak, etikoak eta ingurumenarekin loturikoak barneratzeko helburuarekin. Neurri hori aurrera eramateko laguntza teknikoa eskaini dute REAS Euskadik eta Gizateak, eta GEZKIKo Eider Larrazabal kideak ere parte hartu du.



universidad del país vasco euskal herriko unibertsitatea

INFORMAZIO +

## Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Masterra UPV/EHUKo Master Egunean




900 ikasle baino gehiago bertaratu ziren UPV/EHUKo 2012-2013 ikasturterako graduondoko eskaintza aurkezpena. Parte-hartzaileek graduondoko eskaintzari, master ofizialei eta berezko ikasketei buruzko informazio guztia eskuratu ahal izan zuten prestatutako zortzi erakusmahaietatik eta bertara hurbildu ziren masterretako 97 irakasleen eskutik. Horien artean, GEZKI eta HEGOA institutuek, eta Ekonomia Aplikatua I eta Enpresa Zuzenbideko Departamentuek bultzatutako Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Masterra aurkeztu zen.

INFORMAZIO +

Beste **behatoki** batzuen buletinak

*Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara eta mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipini*



### **Apirilak 3**

**Konferentzia, Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioaren (ENKF) batzarraren ondoren.**

[Informazio gehiago](#)

### **Apirilak 26**

**Jardunaldia: Kooperatibak krisi ekonomikoaren aurrean. Enplegua mantendu eta sortzeko estrategiak.**

[Informazio gehiago](#)

### **Apirilak 28-29**

**Fiareren estatu mailako Batzarra.**

[Informazio gehiago](#)